Alperrik da Azkueren lan bakoitza bere izenez aipatzea, ta neke ere da oroimenara ekartzea. «Euskeltzale» ta «Ibaizabal» aldizkariak, ipui berri edo novela, artikulu eder asko, batez ere Euskeltzaindiaren «Euskeria»-n. Aundienak aipatzeko, «Gipuzkera osotua» ta «Euskalerriaren Yakintza» azken aldi ontan. Azkue iauna gai biltzaille izan dugu batez ere, azterzale bañon areago. Non da astia ere oinbeste gauza zearo azterzeko? Alare ezin ukatu ontarako ere etzula doai galdurik. Or daukagu iztegi aundia. Spencer Dogson'ek egin zion «Euskal-izkinde»'aren euskera *vascuence* ez bañan *azkuence* zala. Ori entzunik, itz bakoitza zeíntzu tokitan erabiltzen ziran zearo ipiñi zigun. Yakiña, Spencer'en «Kapanaga» naiz beste edozein euskal-liburutik Azkuenera osin beltza zegola tartean; baña gure aurretiko idazleek erri euskeraz bear aiña baliatu etziralako. Lenbiziko euskera garbizale Azkue izan dugu, ez oso amorratu oietakoa. Aren tankera artu dugu eunetako larogeita emezortzi idazle ondorekook.

«Euskalerriaren Yakintza» irakurria zidan geiena, argitara baño len. Gauza oiek nik errian bizi izanak ziran arren, erdi loan neduzkan, eta ez nun uste alako ioan-etorri aundirik zutenik; bañan nere poemarako laguntasun izan zaizkida. Baita Barandiaran'en orriak ere. Azkuerenean irakurririk, Uitziko Pestaburu batez au esan nien mutilleri: «Naparroan erritan dantzatzen dute «Kadira dantza», ola eta ola». «Bai emen ere» erantzun zidaten. Egizute bada nik «bost duro emango dizuet». «EZ diteke: ori iñautе-dantza da, tabernan dantzatzeko». «Zuk, tabernan asi baño len emendik aldegin baitziñun, orregatik ez zenekin». Gero,

nere jaioeterrian—Gipuzkoa'n dagola ere—eztaietan dantzatzen zutela esan zidaten alki-dantza ori.

Nik ez nekin, ez bainintzan eztai batean ere gertatu. Uitziko «*Arri-kaxkarra*» esaten zioten Joxe Migel Arrizurieita, basoan gurean ari izan omen, eta bertakoeri ark erakutsi. Gizon onek Azkue zanari kantu ederrik eman zion.

Euskeraz ari geranok Azkue iaunari zor diogu geienik eta euskerak ere bai.

Azkue iauna gizon mardula zan gorputzez, apaiz eredua, biotz oneko gizona. Zortzi urtez egunero iardunarekin zerbaitez ezagutu nula iduri zait. Lende bearrarekin esku-zabala zan.

Langilleen artean askok zor zioten ogia edo ogibidea. Azkenean langille batek atera omen zun ibaira erori zanean.

Atseden beza pakean gure Azkue aundiak. Gure oroiernetik ez da beiñera galduko aren izena euskera bizi daño. Ark atera du gaixoa bere zarpilletatik eta soiñeko apaiñez iantzirik utzi.

ORIXE

PABLO ZAMARRIPA

(1877 - 1946)



Gaztetandik gure R. M. Azkue aztu eziñarekin *Euskal-zale* aldizkarian lanean asi zan.

Gerotzik euskel liburu auek eskeñi zizkigun: *Gramática Vasca, Vocabulario, Manual del Vascófilo, Gora Begira, Zaparradak eta, Kili-Kili* eta abar.

Beraz ondo irabazi zun euskaltzain izendatua izatea; eta orobat Zeruan gertatuko al da apaiz bezela Errelgioaren alde bere bizitza osoa opa izan bait zun. Alabitz!

X.

ARTUR CAMPION

▼

Berrogei eta amar urtez lanean eten gabe aritu ondotik, euskera-ren eta Euskal-herri-aren alde, ainbeste liburu eder izkiriati ondoan, azkenean il zitzaigun Iruñean, ixilean, iñor ohartu gabe kuasik, 1937-garren urtean, Agorraren 18 garrenean.

Iri orretan berean sortu zan 1854 urtean, Mayatza-ren 7 garrenean. Jaidura suharreko gizona, adimen zorrotz-ekoa eta biotz aundikoa, denetaz ezaguna da gure idazlari eta jakintsu aundia.

Euskera-tzaz egin zituen lan zenbaiten izenak bakarrik aipatuko ditugu emen, literato eta Historia-egille bezala bere lan eder eta aipatuak, aldi unetan ixildu bear ditugularik.

Bere leenbizikoa, euskera ikasi zuen-etik 6 urte geroago-ko, *Gramática de los 4 dialectos vascos*, aipu zabaleko liburua izan zen: oraindik ere, bere balioa galdu gabe, leeneko errunka bera atxikitzen duena.

ORREAGA deritziona, euskera mota geyenetan emanikako, Ibañetako gataska zaarraren ipuiña. *Celtas, Iberos, vascos*, darraiona, gero: ats-aundiko lana, euskera eta euskal jatorritasun eta iturburua errotik ikertzen duena; sanskrit, kopto, zelta, aquitan, greko eta beste alako izkuntza itzalien laguntzarekin bururatua.

Eta euskaltasun izpi bat zuketen elkargo eta Bilkura guztietan gogo ta bihotz sartua, asi Iruñeko *Asociación Eus-*

kara aspaldiko artatik 1870-urtean eta gero jarraikiz Euskal Esnalean, Eusko Ikaskuntzan (denetan buruzagi izana) eta bereziki gure Euskaltzaindian, asiera ber-beratik, beti lagun-kide eta lan-kide jarraikia.

Aipagarri da, naiz ez garen orain behar bada tilet-ez tilet orotan akort, Broussain Hazparne-ko alkate bioztun arekin batera egin eta argitaratu zuen Literatur-euskera bakar orrekilako irakurgai mamitsua.

Bere *Euskarianas* ospatsuekin, erdaraz ere agertu da novela-egille eta idazlari eder, bizi, zorrotz eta kilikagarria: literato bezala artista-pintore zen, so-egille zeatza.

Baiñan Campion bizirik ezagutu dugunendako oroitzapen biziena eta biotz unkigarriena zaigu, adiskideen arteko usatzen zuen mintzo beroa eta barnakorra, jakituri edatue-nez ornitua, eta abots arraillatu iduri arretan deblauki botatzen zituen ateraldi gordiñ (nafarra zen) arteza eta gotor ayen oroitzapen ezin ahantzizkoa.

Humanista zen gure gizona, gizatasuna zarion lau bazterretatik. Ainbeste maite zuen sorterria, zorretan dago oraiño bere ospe aundiko semeare-kin.

A. YRIGARAI



JULIO URKIJO jauna

(1871 - 1950)

▼

Urte auetan Urkijo jauna ere galdu du Euskaltzain-diak, gure elkargoa sortu zanetik euskaltzain izana.

A kok ez besteko lana burutu digu, eta alaz ere deus-gutxikatzat zeukan. Ori esaten zien ingurukoei bein ta berriro ere azken-aldian. Ez noski umil-itxurak egiteko, ala uste puelako baizik. Izan ere, berak egiña asko izanik askotaz, gaigo baitzan besteei egin-arazia.

per eta liburu zaar billa zebillen beti, ez ordea zerenke beretzat gordetzeko, zenbait liburuzalek bezela. Ikusi batzen edo erosten zuena guzioi banatu arte etzan geldi. Orrexegatik dauzkagu orain esku-artean, eder-ki arira emanak, Detxepare, Axular, Oihenart, Tartas, Etxeiri, XVI eta XVII garren mendeko esaera zaarrak.

z-lan labur, apaiñen bidez euskal-kulturaren historia berretxinan labur, batez ere oñiarri sendoak ematen iñaki ez bezela lagundu du. Amaika argitasun ez ezik bestekintza ere utzi digu: jakite-bide oietan barrena ibilli nai zuen ondorengoei ikasbide ederra. Gogor artzen kintzak, eta etzitziona iruditzen elkar zurikatuz ezer aurreratzen ditekenik. Zeatz eta zorrotz neurten zuen beraz zer aurrezki, eta etzitziona iruditzen elkar zurikatuz ezer asmatua. Auxe gogorazi nai zigun nonbait: aurrezki bide estu ta nekagarriak, zabal-atsegiañak alde batzuk, autetsi bear dirala, ongi ibilli nai ba'dugu.

ik zuen noski arrotz-zale zalako izena. Etzan gauzak len-daudenean artzen dituztenetako. Beretarre-

nak, etxekoak, baldin ba'ziran batez ere. Arrotzengandik zer ikasia ugari ba'geneukalakoan zegoen. Zuzen, noski. Euskal-erria da, jakiña, euskal-kultura gaiak lantzko lantegirik egokiena, sortzez eta izatez ortarako aukeratua. Baiña ezta berez, besterik gabe, alabear utsez, ikas-leku nagusi biurtuko. Ori jakiñik sortu zuen bere aldizkaria, lurbira osoan euskal-jakingaien berria zabaldu duen RIEV ura. Eta ortara zuzendu zituen gero ere bere alegiñak.

Bere asmoak — gere asmoak — bizi dira oraindik. Eta gure artean dago, bere ikasbideaz gaiñera, bildu zigun liburutegi aberatsa, bere naia betetzeko, ain gogoko izan zuen euskera goi-maillara jasotzea aztu gabe. Urkijo jaunaren bizitza eta lanei buruz edozein argitasun nai duenak «Homenaje a D. Julio de Urquijo»'ren leen-biziko liburura jo dezake.

L. M.

JUAN CARLOS DE GUERRA

(1860 - 1941)



Nork aditu eztu ots aundikoa izen au. Genealogi eta Heraldika kontuan aparteko itzala bereganatu duen izena, alegia? Arrasate edo Mondragoin bizi eta lan egiten zuen, antxe baitzuen bere jatorri edo leiñuko etxea, *Gerruenea* zeritzana. *Heráldica Vasca*-z egiñak dituen lan au di os-petsuak eztitut emen aipatuko, nonai billa baititeke heroien berri. Bai, ordea, Arantzazuko Andre Mariaren onenez, euskeraz egiña duen liburua: «*Ama Virgina Aranza i koaren Kondaira*», Donostian, 1890. Liburu au Donostile Lore-Jokuetan saristatua izan zan. Ortaz gaiñera, gure ikuntza zaarratz zer ikusi dutelako, aipagarri dira berberak egindako edizio auek ere: «*Viejos textos del idioma*» eta «*Los cantares antiguos del euskera*». Mondragoitarra Arantzazurakoan, urteoroko beren erromerian, kantatzen duten kanta eder ura ere, berberak tajutua da.

Donostian jaioa zan 1860 urtean eta bertan il 1941 "arrenen. Goian bedi!

GEORGES LACOMBE

(1879 - 1947)



Bearne'ko Orthez'en sortua zan eta amaren aldetik donapaleutarra, Saint Jayme napar etxe ospetsuko. Gaztetan-dik asko ibillia zan Prantzian iri batetik bestera, bañan azkenean Paris'en kokaturik an bizi ta il zan. Sorbona inguruau igaro zituen urte onenak Filosofiaren ikaskizunetan beti leiatuaz. Gai ortan jakituna zan eta asko zekin, baita Euskera arazoetan ere. Batik bat Alduide ta Zubero'ko euskelgaiak buruz. Orregatik euskaltzain izendatu zuten Broussain jaunaren-alkia betetzearen. Urkixo jaunaren adiskide aundia izan zan. Ez digu liburu aundirik utzi bañan bai lan asko R. I. E. V. eta beste aldizkarietan sakabanatuak.

J. Bilbao'ren bibliografi txartelean 150 etik gora artikulo argitaratuak azaltzen dizkigu. P. Lafitte'k euskaltzain sartzeko egin itzaldian (1949-XI-26) «Herria»-n argitaratua xehetasun geiago ematen dizkigu Georges Lacombe'ren bizitzaz.

1914-1918 gudatean zauritua izanik eskuiko besoa moztu bear izan zioten. Alaz ta guziaz alai, kementsu ta oso lagunartekoia izan zan beti. Atsegin zan arekin jardutea.

Oroitzapen labur au zor diogu. Ainbeste maite izan baitzitun euskera ta gauza guziak.

OLABIDE'tar ERRAMUN, S. I.



Gazteiz'en jayo zan 1869'ko epaillaren 15'an. Amabost urtekin sartu zan Yesusen lagundiko (1884'ko azaroak 7); eta ogeita amairukin eman zun lenbiziko meza (1902). Elizzonen legezko ikastaroz gañera, Salamanca'ko Unibertsidadean Filosofi ta Letrak burutu zitun. Il, berriz, Prantziko Tolosa'n il zan, 73 urtekin, 1942'ko agorraren 9'an.

Gazteiz jayoleku, oar zugun. Andoaindarra zun, alare, aita. Amak, ordea, ez jakin euskerarik. Ezta gure Erramunek ere etzun ezagutu, gutxiago menderatu, gero beste iñortxok bezanbat jakingo zun euskera. Umetzaroko utsune au, ezin estali izan zun gerora maixututakoan ere. Ez bait-zan sekula gauza izan, lagunarteko izjarduriotan, parra-parra euskera jarduteko, adixkideai beti izkuntza ortan mintza-erazten zien arren. Berezko menduz ere ez bait-zan iztuna, ez etorri aundiko; zedarrikiro ta banan-banan itzak eralgi zale baizik.

Berezko legortasun ori idazketan ere nabarmen zaio. Argatik, nunbait, asmatu baño itzuli egin izan zigun bere liburueta. Itzulketan nabari zaigu maixu, ta maixu gorengo, zintzo ta zeatz. Galizian irakasle zalarik, gizonduta gero, euskerari buru ta biotz ikasten ekin zion gazteitztar onek zer irakatsirik asko beti izango du, gure elearen barru-muñak eta tolez izkutuak azterkatu eta igertzeko orduan.

Aipa ditzagun bere liburuak. GOGO-IÑARKUNAK, Loyola'koaren liburua euskeraz, alegia; ta KRISTOREN

ANTZBIDEA. Iñor izatekotan, gure Olabide noski, itzultzale giarra ta zuzena. Amaika esakera egoki ta doi baditu liburu oietan, gazteen jakinbidetza ezezik geroko maixuen ikasgarrirako ere. GIZA-SOÑA'n, aldiz, iñondik bildu di-tezen gorputz-atalen itzak badakartzi, zarren liburuetatik eta erriaren abotik iñarrosita; ta ez itz berri gutxi, antziñako ezjakinetik berpiztuta.

Baño, Olabide'ren izena ezilkortu dun liburu nagusia bere Biblia dugu, eladeratik kolpean itzulki: ITUN BE-RRIA ta, oraindik argitaratzeko, ITUN ZARRA. Euskeraz emandako lanik neketsu ta garaienetakoa, zalantza gabe; atera dun zalaparta, ainbatekoa ez izan arren. 1931'an ar-gitara zan Itun berria, Bilbo'n. Arrezkeroz Jesukristotzaz sortu zaizkigun liburu ederrak (Iraizoz'ena, Oyartzabal'ena, Orixe'ren meza-liburua...) Olabide'ren orpoz-orpo dator, arri jarraika, aren mugarri ta irakatsiak begietatik galdu gabe. Euskera gogortxoa duala esan oi da sarri, ta ez arra-zoi gabe. Yesulagun jakintsuak, ordea, etorkizun luzerako idatzi zun. Ituna, gure mintzoa umatu ta elduko zala uste zaneko aldiatarako. Gure izkuntzak, bere ezurrutsetan, duan sendoa, ta beste izkuntzetatik itzik itz aldatzeko duan gaitasun arrigarria non ikus obeki, naiz ebanjeliotako naiz Paul donearen idazkietako zenbait zati oietan baño?

Ondo merezia zunez, euskaltzaiña izan zan gure Akade-miaren sorrera bertatikantxe. Badira bost, euskal-akademi-koetan, meritu ta kostu gutxiagokin otsandi ta txalo geiago eraman dutenak; munduak eman etzion saria ordaindu deiola zeruak eta etorkizunak, atzerriko atsekabeetan bere azken urteak buka zitun euskaltzale yaioari.

Ain zuzen, Arantzazu'ko ma Birjiñaren eguneantxe il zan, agorraren 9'an. Goizaldera, meza emateko ordua zala-ta, gelara joan zitzazkion billa lekaideak. Antxe topa zuten, sill aletean exerita, parre-antzez, parre-antzez... Ilda zegoanik ere ez omen zu ematen. Ez egon bear ere, euskaltzaleon eskerronean eta gogorapenean, ainbeste aundiko euskal-langille etsikaitzak.—S. M.

EGUSKITZA ta MEABE'tar JUAN B.



Lemonan jaio zan, eta Lemonan il, bere bizitzarik geiena Lekeitio'n igaro bazuan ere.

1875'gn. urtean jaio; 1939'gnean. il, Dagonilla'ren 12'an.

Apaiza zala esan bearrik ez dago—aren idaz-lanai galde—. Eta ez nolanaiko Apaiza, izan ere. Jaungoikozkoa benetan, eta benetan jakintza gañera. Buruz ondotxo jantzia, berez eta ikastez. Adime trinko ta sendoa. Sophistikeri gabeko skolastikoa. Oldiopen sakon eta argia. Itz ondo ebakia. Jardunean ta lagunetean, itz-murritza. Aurpegi irritsua orratik. Lanean, la Akademiz Licentiatua. Gaz Erakusle izana. Lekeitio'ko bat urtean erakusletzan zintz

EUSKALTZAININDIA'n, lan Batzarrik, Eguzkitza jauna bat aurkeztuko etzuanik. Be

Orduko Eguneroko ta Aldi taldu zituan. Eta liburuz ere. dizkigu: elizgaiz, bi: ARIN ILLA; eta beste bat jakintza sa oparoa, itz ondo neurtu gutxitxo bezelakoa—; audi dana adi-errezz; itxuraz xalo. beaztoparik gabekoa... kirri kuan antzo...

e etengabea. Etzan izango edukiro— azterketa-lanen eurdun, beti argi.

riean irakurgai asko argi. Liburu ondo aipagarri utzi N ILLA ta LORETAKO z: GIZARTE-AUZIA. Proskera jatorra —bizkaieraz puztu ta anpaturik gabea; ñan estilo ondotxo landua, ina gorulari trebaren es-

ERRAMUN INTZAGARAI

(Donostia 1878 azaroa'ren 21'an)

EZIN UKATU



Intzagarai apaiz jauna, euskaltzaña, nuan nik adiskide mamia, geren arteko urteen joanagatik. Beste bidez, bera nere aldezlari prestua. Ederki artzen genuan bata-bestea, biak-ala-biak. Onginaia alkarri truk. Ez zitzaizun ots aundiko gizona, isila ta leiala baizik. Irakurle jakin-nai purrukatua. ¡Zenbatetan ez gera kide aritu liburu tartean! «Eusko Ikaskuntza»-n ere bai. Aterako zizun sakelatik idatz-liburuñoa ta ariko zitzaizun tarteka ari ta ari. «*Don Ramón*, lan gogorren bat egiteko zaude». Ezta antzik eman ere.

Agidanean elizatik etorriko zitzaizun euskerazko sermoia eginda. Intzagarai apaiz jauna euskaltzale bikaña izaki. Bikaña ta burutsua. Edo-ta, burutsua ta bikaña. Atzerritarra ala bertakoa, zana-zala, euskeraz ikastera *Don Ramón*-engana bidaltzen genuan. Makiñabat ikasle onela ibilii. Erriko «Círculo Integrista»-tik, euskeraz ikasi naiez, atoz, ta joan zan. ¿Orduzkoa ote Etxaide jaunaren euskalduntzea?

Donostia-ko euskerazko asteroko argiari bizitza eman ta ttaka-ttaka ibiltzen erakutsi genionean, antxen zan gurekin batean Intzagarai jauna. Eta gerta oi dan bezela, ize-nordez idazten danean orde-izenez idazlariari deitza, ordutzik *Don Ramón* bearrean *Elurmendi* aipatu. Ta *Elurmendi* zan erriko barren-barrengo txokoak eraskuten ziz-

kiguna, donostiarren izkera jatorrean, leioetan zintzilik ikusten diran kolaio puska legorrak aztu gabe.

Don Ramón Intzagarai donostiarra... jai bera nolako! Erritarren artean beti izan oi dira errizale ospetsuak. Ordea, Intzagarai jaunaren donostiartasuna ezin geiagokoa. Geroni makalak ez geralarik, alkarrekin neurtzekotan txautuko ginduzke. Muñetarañoko donostiarra genuan. Erridestian maiz egiten zuan murgil, erria ezagutuago ta maitteago, alegia. Iñon ez bere erria bezelakoa. Etxe-sarreran, noski, *Ciudad de San Sebastián* izenadun irudigarria Orra erriari txapela maiz kentzeko aukera. Izen aren betetzen zuan *Elurmendi*, arako arri zaarrak sutauts-usaia oraindik joangabeak. Ni *Donostia* eleberria idazten ari nintzala izenbatetan ez zait ottu gure *Elurmendi!* ¡Ai, egiten nion nere buruari —banekizki arek zekizkian Donostia-ko makiñabat gertaera txiki barru-barrukoak!, ura bizi izan baizan nere aurreragoko urteetan Donostia donostiagoa zanean. «Zuk bear zenuke *Donostia* idatzi», bein esan nion.

Baño gajoa il zanean azaldu zan zein lan «gogorra» zerbilkian eskutartean. Ura zan, ainbeste lan eman zizkion egitekoa: *Historia Eclesiástica de San Sebastián*. Ori eginda joan zan bizidunen tartetik. Goian bego ta an egongo da, sekulako, noski. Intzagarai jaunaren oroimenezko lerro batzuk eskatu zizkidatenean, ezin ba, ezin ukatu.

ANABITARTE TAR AUGUSTIN



SAINT-PIERRE apezpiku jauna

(1884 - 1951)

▼

Euskal-Erriak bere seme obenetarik bat galdu du. Itzal aundiko gizon bat: Monseigneur Jean Saint-Pierre apezpikua.

Bayona'n il zen 1952'ko Abenduaren 16'n. Milafranga'n sortua 1884 garren Martxoaren 18'n. Ez ziren gurasoak aberatsetatik eta lanak zitzuzten beren aurruk azten. Amar senide bait ziren eta zortzigarrena gure Joasttipi. Bizkitartean fede suhar bat bazuten eta orrek bere ondorioak eman zitun. Etxebers eskola-maisua oartzan joastipiri'ren adimen zorrotzari et irakasletarako gorde nai izan zuen; baiñan beste dei batek oihu biziagoa egiñik mutikoa Larresoro'ra bidali zuten. Ez zen aisa laketu lenengo egunetan: etxe-miña eltzen zitzaison Errobi aldera begiratzean, bañan Abbadie buruzagi jaunak bazekien nola ar mutikoi orren bihotz eria. Eta laister etxean bezala zegon Larresoro'n. Emendik Bayona'ko seminario aundira joan zen apez egin artio. Au 1908 garrren urtean gerta zan. Ikaskizunak jarraituz Prantzia'ko Tolosa'n «*licencié ès lettres*» tituloa irabazi zuen eta 1910 urtean Errroma'n Doktor izen ospetsua eman zioten.

Bereala Baiona'ko San Andres'en apez-lagun jarri zuten eta andik amabost illabetera Hazparren'go mixiolari etxerako izendaturik. Bi urtez kurritu zuen Euskal-Erria jendeak harritzen zituela bere irakaspenei eder eta sarkorrezi eta bere euskera paregabez: Axular, Duhalde, Arbelbide eta Hiriart-Urruti'ren idazkiak lagun zitularik.

1914'ko Otsaillean Seminario aundira deitu zuten baiñan gudatea urbil zegon. Lehen egunetarik mobilisatua sarjento ibilli zen Charleroi, Marne, Verdun eta beste toki askotan, batere arriskoaren ajolarik gabe. Aipa-

men ederrak egin zizkioten eta bai eman gurutze eta medaila ainitz. Orduan *Euskalduna* astekarian idatzi zituen gerrako berri ta artikulo bikaiñak. Alemanek prisionero artu zuten Montsdidier inguruau. Alemani'ra eramana izan zen eta an ere ez zuen astirik galdu: apez-gaientza-ko ikastetxe bat antolatu ta zuzendari agertzen zaigu. Noizpait gudatea amaitu zanean berantetsirik zegon Euskal-Errira itzultzeaz eta beste lagun batzuekin oñez abi-tu zen etxeruntz.

Berri ere Seminario aundian sar arazi zuten «mora-la» erakustera ta predikaritzan nola bear dun izan. Beste lan anitzetan leia zan garai artan. 1921'garren urtean Blazy, Barbier, Elissalde eta Moulier adiskideekin «Gure Herria» aldizkaria sortu zuten.

Euskal idazle bezala ta *Anxuberro* izen-ordeaz «Kiriñio» saria irabazi zuan. 1922'n Apezpikuaren sekre-tario izendatu zuten; eta 1925'n Baiona'ko Katedrala'ren kalonje. Adema jaunak «*Euskalduna*» astekariaren buruzagitzu utzi zualarik Saint-Pierre jauna egin zuten zuzendari eta bizi berri bat eman zion periodikoari. Aldi artan Baionan egin Eukaristi-Bazzar ospetsuak su-emaille ta eragille bizkorrena Saint-Pierre kalonjea izan bide zun. Kartago'ko Goi-apezpikuak ezaguturik aren balioa apezpiku maila goitarrera igo arazi zuen eta 1930'go Maia-tzean Gordus'eko apezpiku edo gotzai onetsi zuten audi-kiro.

Monseigneur Saint-Pierre agurgarria Tunisi'ra joan zen lanera Kartago'ko apezpikuaren laguntzalle bezala. 1938 urtean itzuli zen Milafraga'ra alabearrez. Geroztik unat ez zen alfer egon ez. Bazabilen, konfirmatzen, itzaldi ta predikuak ematen, agintzen zizkioten elizkizun guzietan. Oroz gainetik Euskeraz, eta Euskal-Erriko ze-rez arras gogoetatua zagon. Euskaltzaindi'ko genun, «Gure Herriaren» gidari abar eta abar. Itz batez erra-teko: denetan argi eta langille.

Othoitz egin zugun beraz gure adiskide min eta apezkiku zen Mgr. Saint Pierre'ren alde et jarrrai dezagun euskaltzale suhar onek ideki daukun bidean.

Actividades de la Academia

Bajo los auspicios del Presidente de Euskaltzaindia, Don Ignacio Echaide, y por iniciativa del miembro de número D. Angel Yrigaray, se vienen celebrando unas Charlas literarias mensuales en una sala de la Diputación provincial, en San Sebastian, cedida galantemente por su Presidente D. José M.^a Caballero, por cuya colaboración entusiasta se hace acreedor a nuestro sincero agradecimiento.

El objeto de estas Charlas es dar a conocer en un tono sencillo y familiar, a los escritores antiguos del *euskera*, demasiado ignorados, leyendo algunos trozos selectos y haciendo algunos comentarios sobre determinado autor.

Se han celebrado ya seis de estas reuniones académicas; habiendo versado la primera Charla sobre el escritor saratarra e ilustre doctor de Azcoitia Yoannes d'Etxeberri, descubierto por Urquijo. Resultó una amena y documentada Conferencia a cargo del académico y vascólogo de Aránzazu, P. Villasante.

La 2.^a estuvo a cargo del también académico D. Luis Michelena, sobre el escritor suletino Ohienart, el famoso historiador. Se leyeron algunas poesías amatarias, esmaltando su acabada conferencia, con comentarios llenos de erudición.

La 3.^a estuvo a cargo del igualmente académico D. Angel Yrigaray, sobre la figura y la obra del renombrado Axular: exponiendo algunas noticias biográficas del más destacado escritor vasco, y atinados comentarios sobre el

estilo y las cualidades de su famoso GUERO. Siguiéndose después entre los oyentes una animada disquisición sobre los estilos literarios.

La 4.^a Disertación corrió a cargo del abogado Don Antonio Arrue que versó sobre Aguirre de Asteasu: este elegante escritor guipuzcoano fué una revelación para muchos; el disertante comentó a su autor con justeza, y con arte de buen estilo, y leyó unas páginas de sus *Platicac*, que gustaron especialmente.

La 5.^a conferencia la dijo en un euskera pulcro y natural D. José M. Lojendio que trató sobre el escritor eibarrés-marquinés Moguel, leyendo unos donosos trozos de su famoso *Peru Abarca*.

La 6.^a estuvo a cargo de D. Antonio Labayen que disertó sobre el estilo del gran poeta Elissamburu, haciendo unos eruditos y atinados comentarios.

La selecta concurrencia llenó en dichas reuniones la pequeña Biblioteca Urquijo, y los conferenciantes expusieron todos, su disertación, en un vascuence elegante y correcto a la vez que muy comprensible y natural: éste detalle fué advertido en todos y los oyentes lo comentaban con agrado.

La 1.^a conferencia se publicó en el Boletín de la Real S. Vascongada. Las siguientes se publicarán igualmente, bien en estos Cuadernos o en el Boletín de la R. S. Vascongada, que tiene la gentileza de poner siempre a nuestra disposición algunas páginas, por lo que desde aquí queremos expresarle nuestro saludo de gracias.

En las Charlas que seguirán, a las ocho de la noche, el último jueves de cada mes, se disertará sobre *Vilinch*, *Dechepare*, etc. por los señores que se indicarán a su tiempo; ateniéndonos al plan que nos hemos propuesto de dedicarlas principalmente a los literatos antiguos.

Publicaciones previstas.—Si la ayuda que las Diputaciones y algunas entidades, como la Caja de Guipúzcoa, nos

prestan, progresá en la medida que esperamos, y que tanto dice en favor del espíritu de esas ilustres Corporaciones: ésta Academia proyecta publicar, en grafía actual, algunos textos antiguos de ediciones agotadas, y reiteradamente solicitados por los estudiosos.

Así el GUERO de Axular, la obra maestra de nuestra Literatura, se está ya adaptando a la ortografía moderna, conservando íntegramente el texto original, que se piensa publicar con notas lexicales. Esperamos poder hacer lo mismo con *Dechepare*, *Oihenart*, *Garibay* (Refranero), *Yoanes d'Etxeberri*, &c.

En el fácil camino de los proyectos, se pide, y no lo olvidamos en nuestros planes, una Antología de autores vascos más modernos: y ediciones populares e infantiles de los Cuentos y Leyendas de Barandiarán, Azkue, Bustinza, &c.

Pero el menester más obligado de *Euskaltzaindia*, que no lo aborda por falta absoluta de medios, será siempre la edición invertida castellano-euskera, iniciada ha tiempo, del gran diccionario de Azkue: o por lo menos, la de un lexicón manual restringido, castellano-euskera, con criterio moderno; y dedicado a los Instructores y literatos, en el que se dé cabida a algunos términos técnicos, científicos y urbanos, de uso corriente. Si las asistencias esperadas con fundamento no fallan, será acaso conveniente pensar en algún Concurso de trabajos del tipo de los reseñados.



Urdiain, 1983-VI-14

1936eko gerra inguruan Euskaltzaindiaren biziari dagozkion berriak ez dira beti jakiten. Euskaltzain urgazleen zerrendan hutsune bat baino gehiago gerta daiteke. Pragan bada, esate baterako, euskaltzain urgazle izandako baten aztarnarik. Norbert Tauer, ohorezko euskaltzainak, aipatu zidan lehenik Rudolf J. SLABY urgazlearen izena. Azkuerekin harreman asko izan zuen eta euskarari buruz zenbait idazlan argitaratu zuen.

Beraren hilobian, hain zuzen, Euskaltzaindiko urgazle zela esaten da, eta Espainiako Akademiako lagunkide ere bai. Calderon-en bertso batzu ezarra-razi zituen bere azken egoitzaren gainean.

J. M. Satrustegi

AURKIBIDEA

EUSKERA XVIII Urtea, I-II 1937 Ilbeltza-Garragarrila	
LA HISTORIA Y GEOGRAFIA DE ESPANA ILUSTRADAS POR EL IDIOMA VASCUENCE, por <i>Juan Antonio Moguel</i> . Edición dirigida por el <i>Dr. Gárate</i> (segunda parte)	
ILUSTRACION VIII	
NOMENCLATURA DE CATALUÑA EN LA QUE SE EXPONEN LAS VOCES DE ORIGEN VASCUENCE CON CORRESPONDIENTES ETIMOLOGIAS	3
CATALUÑA.....	3
CORREGIMIENTO DE BARCELONA	3
CORREGIMIENTO DE VIGUE	4
CORREGIMIENTO DE GERONA	7
CORREGIMIENTO DE TALLARIN	13
CORREGIMIENTO DE CERBERA (1)	20
CORREGIMIENTO DE TARRAGONA.....	24
CORREGIMIENTO DE PUICERDA (1)	25
CORREGIMIENTO DE VILLAFRANCA	27
CORREGIMIENTO DE TORTOSA	28
SUBDELEGACION DEL VALLE DE ARAN	29
CORREGIMIENTO DE MANRESA	30
CORREGIMIENTO DE LERIDA	32

REFLEXIONES SOBRE NOMENCLATURA VASCONGADA DE CATALUÑA	34
ILUSTACION IX	
SOBRE LOS CELTAS Y CELTIBEROS DE ESPAÑA	41
DISERTACION SI LAS PROVINCIAS DE VIZCAYA, GUIPUZCOA Y ALABA ESTAN COMPRENDIDAS EN LA CANTABRIA ANTIGUA	54
DOCUMENTO DE LA MAS REMOTA ANTIGÜEDAD EN IDIOMA VASCONGADO Y DIALECTO VIZCAINO TRANSMITIDO POR EL ESCRIBANO IBARGUEN, COMISIONADO DEL SEÑORIO, A UNA CON OTRO SUJETO DE CARACTER, PARA EL REGISTRO DEL ARCHIVO DE SIMANCAS Y OTROS DE VIZCAYA .	60
GUTUNEZKO AGIRIAK	65
PEDRO SAINZ JAUNAREN GUTUNA	III
CARTA DE D. PEDRO SAINZ RODRIGUEZ	IV
CARTA DE R. M. ^a DE AZKUE A D. JULIO DE URQUIJO	V
CARTA DE LA JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA A D. R. M. ^a DE AZKUE	VII
EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK (1949-1964)	73
EUSKERA, cuaderno I, Octubre-1953-Urrilla	
EUSKERA'ren I Aroa = I EPOCA (1920-1937).....	3
AURKIBIDEAK-INDICES-TABLES	3
I.—EGILLE-IZENDUNAK (Articulos clasificados por orden alfabético de autores)	5
II.—EGILLE-IZENGABEKOAK (Anónimos)	16
III.—EUSKALTZAINDIAREN BATZARRETAKO AGIRI ETA ERABAKIAK (Actas de las sesiones)	
ALGUNOS ACUERDOS DE LA ACADEMIA VASCA	27
R. M. ^a AZKUE (1864-1951)	29
PABLO ZAMARRIPA (1877-1946)	31
ARTUR CAMPION (1854-1937)	32
JULIO URKIJO (1871-1950)	34
JUAN CARLOS DE GUERRA (1860-1941)	35
GEORGES LACOMBE (1879-1947)	36
OLABIDE'tar ERRAMUN (1869-1942)	37

EGUSKITZA TA MEGABE'tar JUAN B. (1875-1939)	39
ERRAMUN INTZAGARAI (1878-1947)	40
SAINT-PIERRE apezkiku jauna (1884-1951)	42
ACTIVIDADES DE LA ACADEMIA	45
<i>J. M.^a Satrustegi: J. SLABÝ URGAZLEA DELA ETA</i>	49